

## Giza genoma oso-osorik deskodetzea lortu dute

Giza genomaren sekuentzia deskodetuta bazegoen ere, % 8 guztiz ezezaguna zen oraindik. Sekuentzia oso errepikakorrez osatutako zatiak ziren; errepikakorregiak orain arteko teknologiarekin sekuentziatu ahal izateko. Orain, teknologia berriak erabiliz, lortu dute. [Science aldizkariak argitaratu du, ale berezi batean.](#)



ARG.: Ernesto del Aguila III, NHGRI.


Hiru urtez aritu da Telomere-to-Telomere (T2T) nazioarteko partzuergoa sekuentzia horiek deskodetzeko lanean. Zelula-lerro berezi bat erabili dute, amaren DNA errefusatu eta aitarena bikoiztu zuten enbrioi batetik eratorria.

Sekuentzia berri gehienak zentromeroetan eta telomeroetan daude. Zentromeroek garrantzi handia dute zatiketa zelularrean DNA banatzeko. Zentromeroetako akatsek lotura zuzena dute hainbat gaitzekin, eta gizakien eboluzioaren aztarnak ere gordetzen dira gunere berezi horietan. Telomeroak, berriz, kromosomen muturrak babesten dituzten sekuentzia errepikakorrak dira; zahartu ahala laburtu egiten dira, eta, alderantziz, tumoreetan, hazi. Horregatik, sekuentzia horiek ezagutzea garrantzitsua izan daiteke zahartzea, minbizia eta beste gaixotasun batzuk hobeto ulertzeko. ●

## Platinoaren ordezkaria burdina darabilen hidrogenozko erregai-pila

Hidrogenozko erregai-pilek hidrogenoa elektrizitate bihurtzen dute, eta ur-lurruna baino ez dute askatzen; hortaz, oso baliagarriak izan daitezke energia-trantsizioarako. Baina, eskuragarriak eta jasagarriak izan daitezke, zenbait oztopo gainditu behar dituzte oraindik. Horien artean, katalizatzailea dago: prozesuan, platinoa erabili ohi dute, eta elementu urria eta garestia da (erregai-pila baten kostuaren % 60 platinoari dagokio). Orain, Londresko Imperial Collegek gidatutako ikerketa batean, platinoraren ordezkaria burdina darabilen hidrogenozko erregai-pila bat garatu dute.

[Nature Catalysis aldizkarian argitaratu dute lana,](#) eta, zehaztu dutenez, burdinaz gain, nitrogenoa eta karbonoa baino ez dituzte erabiltzen katalizatzaile gisa; material merkeak eta erraz eskura daitezkeenak denak ere. Hain zuzen, katalizatzailea elektrizitatea eroaten duen karbono-matrize bat da, eta barruan burdin atomo askeak ditu, elkartuta daudenean baino askoz ere errektiboak baitira horrela. Horri esker, platinoa darabilten erregai-pilen pareko errendimendua lortu dute. Gainera, uste dute beste prozesu batzuetarako ere baliagarria izan daitekeela. ●



Burdina darabilen hidrogenozko erregai-pila probatzen, laborategian. ARG.: Imperial College London.